

Maiatzaren 11n egingo da Areatzan Arratiako II. Raida

10. orrialdea

Zeanuriko erroten ibilaldia 5ean

Maiatzaren 5ean izango da Joko Alai eta Ipizki Taldeak antolatuta 2013ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten zortzigarren edizioa beteko dau marxa honek. Ez dira gibxi Zeanurin ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo euren arrastoak, guztira hamazortzi. Bederatziren ondotik pasauko dira ibiltariak eta bitan sartu-urtena egiteko aukerea egongo da. **13. orrialdea**



Zeanuri-Dima herri kirol "errebantxea" Zeanurin hilaren 4an

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

185

2013ko maiatzaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Cementoseko greba amaitu da

Cementos Lemonako beharginak beharrera bueltau dira, enpresa zuzendaritzeak eta enpresa batzordeak "lanaren egonkortasuna bermatzen" dauan hitzarmena eta 16 kaleratuak euren lanpostuetara itzuliko dirala sinatu ostean.

Holan, zazpi hilabeteko mobilizazioai, tartean lau hile eta erdiko grebari emoten jako amaiera. Gatazkea hasi zanean Cementos Lemonaren jaubea Portland Valderrivas zan eta amaieran Irlandako CHR taldea. "Multinazional biri egin deusagu aurre" esan eban Jabi Amorrortu enpresa batzordekoak eta "inork espero ez ebana lortu dogu beharginen batasunari esker". Hitzarmena 2014ko apirilera arte egongo da indarrean. Akordio lortu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzeak egin dauz bitartekaritza lanak azken hilean. Izan be, Cementos Lemonan 123 langilek egiten dabe behar eta eragin handia dauka eskualdeko ekonomian. **5. orrialdea**



Cementosekoak akordioaren barri prensurrekoan emoten.

ZEANURI

Ganadu azokea San Isidro egunean



Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXII. edizioa izango da Zeanurin San Isidro egunean. Azokan, ganadua gobernatzeko lanen erakustaldia be egongo da, eta arrastian, idi probak. Hurreratzen diranak ardiak eraisten eta gaztagintzan ikasi daikie, ardi mozketa erakustaldiak ikusi eta artxoak dastatu. Idi probetan, Zeanuriko Mintegi baserriko idiak Gatika eta Mungiako idiakaz neurtuko dira.

Hurrengo zapatuan, sega erakustaldia egongo da Torreko solano. **7. orrialdea**

AREATZA

Bakegintzearen gainean berbetan Bertha Gaztelumendigaz

Bertha Gaztelumendi kazetaria eta *Mariposas en el hierro* filmaren zuzendaria Edume Brouard eta Arantza Madariagaz batera egon zan Areatzan, apirilaren 19an filma aurkezten. Dokumental hau 2012ko Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailean estrenau zan, eta biolentzia desbardin biktima izan eta bakearen alde apostua egin daben andren testigantzak jasoten dauz. Justizia eta bakegintzearen gainean egin dau berba BEGIRUK zuzendariagaz. **8. eta 9. orrialdeak**

IGORRE

Batz-ek atek zabalduko dauz

50. urteurreneko ekitaldiak dirala eta, maiatzaren 10 eta 11n atek zabalduko ditu Igorreko enpresek. Barikuan, ekitaldi instituzionala izango da eta fundadoreak eta laguntzaileak, politikariak, Mondragon Kooperatibakoak, bankuak eta zentru teknologiak dagoz konbidautu, beste batzuen artean. Zapatuan, herritarrai zabalduko deutsez atek Batz-ek. Barikuko ekitaldi instituzionalean fundadoreen ohorezko monolitoari estalia kenduko deutse. Hurrengo eguna, ate irekien eguna izango da. **5. orrialdea**

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK
maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

Lan mundura hurbiltzeko ikastaro osagarriak eta proiektu praktikoak garatzeko aukera eskaintzen dogu!

Deitu eta informatu zaitez!

Oruea

www.orueeskola.org
Tel. 946 300 058
San Miguel de Dudea, s/n
48340 AMOREBIETA-ETXANO

IGTIE

AUTOKONSUMORAKO ORTU
AGROEKOLOGIKOAK, DAGOANA
MANTENIDU, BARRIAK SORTU

Arratian be soloak ikusten dira kaminotik, ibai ertzetan, ibarretan eta normalean herritik hur. Baserriko familiak beti mantentzen ditue holango soloak han hemenka, oiloak edo ardi gitxi batzuk... Gainera, baserriko ez daukientzat be, herri guztietan dagoz lur egoki eta emonkorak. Honek mantentzea eta berreskuratzea oso garrantzitsua da. Esan behar da instituzinoak luraren ordenamentuaren kudeaketa desegokia bultzatu dabela orain arte. Lur emonkorak (landa eremua), etxeak eta industria guneak eregitako erabili doguz azken 20 urteotan, eta mendi magalak edota edozein lurrik ez dabe balio elikagaien ekoizpe-

nerako! Honek guztiak zerikusi handia izan dau gure luraren partzelamentuan eta erabilera mugatuan.

Solo txiki honek gero eta gehiago ugaltzen dira, eta kasu gehienetan ildo beretik doaz eta bete beharreko baldintzak oso antzekoak dira:

- Proiektu kolektiboak dira, lur publikoetan kokatzen dira kasu gehienetan, banakako lana eta talde lana buztartzen dabe: beti sortzean dira komunean egin behar diran hobekuntzak (sarrerea atondu, ura ekarri, hesia ipini...).

- Ekoizpena eta banaketea mugatuta dagoz: soloetan lortutako elikagaiak ez dira saltzeako, norbera eta familiarentzako elika-

gaiak dira.

- Nekazaritza era ekologikoan garatzen dabe, hau da, ezelango pestizidarik eta ongarri kimiko barik.

- Lur-zatiaren tamaina asko jota 100 metro karratukoa da, familia elikatzeko nahikoa.

- Parte hartzean dabenentzako ikastaroak antolatzen dira, nekazaritza ekologikoaren oinarriko ezagutzak landuteko.

Aspaldian, bai alkarte sozialak eta bai udalak holango solo txikiak bultzatzen hasi dira Euskal Herri osoan zehar. Kasuan kasu antolakuntza desbardina da, so-look nori zuzenduta dagozan eta helburu nagusiak zeintzuk diran kontuan hartzean badogu: aisialdirako soloak (Gazteiz, Zarautz...), herri proiektu integral baten barruan kokatzen diran soloak, udal langileakaz batera mantentzen diranak (Noain, Usurbil, Etxarri



Aranaz...), langabetu eta jubila- duentzako soloak (Barakaldo...), diru sarrera eskasak dituen fami- lientzako (Laudio...), edo herriko edozeinentzako soloak (Otxandio...).

Momentuz, Arratiako herrietan antzeko proiektuak planifikazio

fasean dagoz (Lemoa, Igorre, Dima...). Beraz, adi egon zaitezte, sortu daitezkean aukerak aprobet- xetako, natureagaz kontaktuan egoteko, ariketa fisikoa eta osa- sun mentala landuteko eta batez be uzta sasoiaren izerdien saria dastatzeko.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 29tik maiatzaren 5era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 6tik 12ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 13tik 19ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 94 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 94 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriaraino): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Clara Luja Azpiri, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen keak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Isiotu



Hasarratu, sutan parau edo ernegau... Hori guztiori esateko Arratian aditz hau erabilten da: isio, isiotu, ixegi, ixetu, ixitu edo ixotu (agoskatuta, ixío, ixétu, ixítu, ixótu...). Berez sua emon edo sua egin da. Baina badauka beste esangura bat be. Iturriko ur-txorroa, argia edo beste zeozer -animoa bera be izan lei- amatauta egonik biztu behar danean esaten da. Batuz, izeki eta piztu aditzak erabilten dira.

ERETXIA

Eskubideak

Azken hileko gertakariak ikusita eskubideak zein aldakorrak eta subjektiboak diran otu jata. Era berean justizia, legea eta eskubideak zerikusirik ez daukien hiru kontzeptu dirala. Adibidez, Frantziako estaduan ezkontza homosexualak legeztatutue. Azkenean, Euskal Herri osoan edozein biztanlek izango dau gura dauanagaz ezkontzeko eskubidea. Bai, eskubidea lortu, gero ez ezkontzeko, utikan esateko. Eskubidea konkistau, gero ez erabilteko, edo bai. Honegaz batera, garrantzitsuago dan zerbait be lortu da: edozein umek izango dau eskubidea gurasoak (edozein dala be euren aukera sexuala) legalki guraso izateko.

Ezkontza homosexualaren kontra dagozanak, batez be, adopzioaren kontra dagoz. Dinoenez, umeentzat kaltegarria izan daiteke ama bi edo aita bigaz hezteka, aita eta ama behar dala orekatuta hazteko. Baina historiak erakusten deusku bikote heterosexualetan sortzean diran haurrak ez dirala danak ekilibrauak. Aita eta ama eukitea ona da maitasuna eta babesa emoten badeutsee txikiak, horixe da eta umeak behar dabena: gozotasuna, ziurtasuna eta zainketak. Izango ahalko dabe munduko haur guztiak halakorik izateko eskubidea!

Aitatu legez, eskubideak denporeagaz aldatu egiten dira. Orain dala gitxira arte andrazkook ez genduan eskubiderik. Kontu korrante edo pasaporte egiteko, adibidez, aitaren edo senarraren baimena beharrezkoa zan. Orain dala 35-40 urtez nabil berbetan, 70. hamarkadearen amaieran gertatzen zan hori, hain zuzen. Eleizarentzat be arima bako izakiak ginan. Beraz, ezin esan betikoak balio deuskula, eskubideen munduan dana dalako aldakorra, normalean onerako.

Halanda be, eskubideak aldatu egiten dirala esan dot, baina zer da eskubidea? Persona batzuek eskubidetzat kontu bitxiak alda-



LEIRE NARBAIZA

Kazetaria

rrikatzen ditue, kutsatzeko eta zikintzeko eskubidea esaterako, zaborra botateko modua ebazteari deitzen deusie deretxoa. Edo zigarroaren kea aurpegian botateari. Lege horreen aurka egingo dabe, jo eta su, euren eskubidea dala adierazoz. Hori bai, benetakoak murrizten dituenen etxean geratzen dira, txintik esan barik. Izan be, beren egunerokotasunean kalterik egin ezean, meneko dira. Murrizketakaz, lan-eskubideak aldatzen dabiz, eta Bangladeshkoak kanbiau beharrean, gureetara hurreratuz, gureak euren etara gerturatzen dabiz, zoritxarrez. Erretiro adina luzatu, gizarte ongizatea desagertu. Eskubideak deuseztatu, berba baten.

Baina zer edo zer argi badago da danok ez daukaguzala eskumen berberak. Adibidez, ares-tian aitatu dodan Bangladeshen hildakoak etxera jornala eroan gura izan ezker, men egin behar izaten deusie ugazabak esaten dauanari, bizitza arriskuan jarrita, gu sarri aldatu gaitazan; ez eskubidez, janzkeraz baino, arropa merkea jantzi daigun. Eskubiderik eza. Balioa be merkea. Bostongo 3 hildakoak orduak eta orriak bete ditue komunikabideetan, baina Bangladeshko 370ek 20. postua bete dabe. Mailak eta justizia, justizia eta zuzenbidea. Zerikusirik ez daben kontuak. Ikusgarritasun eza, komunikabide konbentzionalen bazterketea, Donostiako Bulebarrean be agerian itxi ebena: eskubideak defendatuz, legeari jarki, justiziari aurre eginda, komunikabideetan ikusezin!

Justizia, legea eta eskubideak, balio erlatiboak.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkutatzen Batzua gurea

MONDRAGON

LUMATUTEN



XABIER PEREZ DE MENDIOLA

Werther efektua

Werther gaztearen pena (*Die Leiden des jungen Werthers*) Johan Wolfgang von Goetheren nobela epistolarra da, erdi autobiografikoa eta 1774an argitaratua. Istorioaren protagonistak, Werther gazte gartsu eta sentiberak, maiteminez bere burua hilten dau. Garaiko mutilak pertsonajearen janzkera imitetan hasi ziran orduan, baina baita, haren hilteko modua be: 2000 irakurlek, tiroz, beren buruaz beste egin eben European. Hori dala ta, eleberria hainbat lekutan debekatua izan zan.

200 urte beranduago, David Phillips ikertzaileak Werther efektua deritxo lehenengoz fenomeno horrerri, hau da, suizidioaren imitazioari. Kasurik sonaenetakoa Marilyn Monroe zine izar distiratsua izan zan: bere buruaz beste egin eban hilabetean, 1962ko abuztuan, 303 suizidio estra jazo ziran, % 12ko igoera, hain justu be.

Ordutik hona, asko ikertu da gai horren inguruan, batez be hedabideetako suizidioan erreportajeak daukien rola aztertuz. 1983tik 1986ra, Vienako metroan izan zan suizidioan gorakada dramatikoak, gertakizun horreek prentsan eben hedadura nabarmenagaz lotu zan. Austriako Suizidioaren Prebenzinorako Alkarteak eta Austriako prentsak gertaera horreen barri ez emotea edo barruko orrialdeetan azalpen labur batez soilik emotea hitzartu eben. Ebatzi horrek metroko suizidioan egundoko jaitsiera ekarri eban.

Egun, jakin badakigu, dagoan ebidentzia zientifiko sendoak holan frogatuten daualako, komunikabideetan suizidioan bariak agertuteak buru-hiltearen gehikuntza dakarrena. Are gehiago erreportajea sentsazionalista bada, lehen orrialdekoa eta hedapen zabalekoa. Hildakoaren datuak eta erabilitako metodoa jakitera emoteak be eragin negatiboa dauka. Zergaitiak sinplifikatutea eta hildakoiari aintza emotea dira aztertutako beste faktore kaltegarri batzuk, batik bat krisi (psikosozial) egoeran dagozan personentzat; honeek hilaren situazioagaz identifikatu leitekezalako, suizidioan urtekeratuina topauz.

Horrenbestegaz, ba ete dakie zertan dabizen hedabideak, suizidioak eta etxe kaleratzeak, inongo ardura barik, titularretan alkarregaz ipinten dabezenean?

ZERTZEAN



Fedea

ARITZ ARRIZABALAGA

Kristoren gorputza esan eta apaizak min-gainean jarri dio ogia. Ahoa itxi eta bere tokirantz egin du mihiaren laguntzaz aho sabaian itsatsi zaion ogi zatia era disimulatuan ez-tarrian behera bultzatzen duen artean. Lortu duenean, eskuineko eskua bularrera eraman, estutu eta ziplo erori da lurrera.

Hilda dagoela ohartu da eliztarrak inguratu baino lehen, lurrera erori eta pare bat segundora arima gorputzetik irten baitzaio, fiuu. Izutu egin da hasieran, zaila baita onartzea bukatu dela. Gero, ordea, la-saitasunak eta pozak hartu diote gaina, ez baitu uste hiltzeko eliza baino toki aproposagorik dagoenik.

Arima erraz askatu da gorputzetik eta istant batean gorputzetik hogezi zentimetrora geratu da, etzanda, gorputzaren jarrera berean. Gainerako eliztarrak bere inguruan daude suspertu nahian. Esan nahi lieke berandu dela eta lasai egoteko, bera badoala

zerurantz, baina ezin du. Ezin die esan eta ezin du zerurantz joan. Gorputzetik askatu den bezain erraz egingo zuela gorantz pentsatu du, fiuu luzeago bat-edo, eta minutu gutxian San Pedroren aurrean egongo zela, baina bere arimak etzanda jarraitzen du, gorputzarekiko paralelo, hogezi bat zentimetrora.

Ez da urduritu hala ere. Hirurogei urtean zintzo asko joan da elizara eta Jainkoaren hitza bete du hutsik egin gabe. Arimak zerurako bidea hogeigarraren zentimetroan eten badu, gaubeila, hileta-meza eta ondorengo elizkizunak falta direlako izango da.

Ez da urduritu. Itxaron egin die: lasai gau beilari; lasai hiletari. Poztu ere egin da aukeratu dioten hilkutxa dotoreagatik eta hiletara hurbildu den herritar kopuru handiagatik. Eskerrak eman nahi lizkieke. Baita hilobian sartu duten langileei ere.

Hilobia zarratzen duen hormigoizko atearen hotsa entzutean soilik hasi da urduritzen.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Arriar bat baino gehiagori entzun deusat greba garaian Cementosen aurretik pasau, aurreko kanpamentua-ta ikusi eta negargurea egin jakola.

Gaur, ostera, pozezko negar-mpuluak urten deuskue despedidu guztiak barriro beharrea hasiko dirala jakitean.

Harrotasun puntu bat be badago negar-mpulu horreetan, ikusi besterik ez dagoz martiaren 28an mobilean jaso nebazan mezuak; Carirena: Gora langileria! Azurena: Burrukea da bide bakarra! Iñakirena: Zorionak burrukalariari! Sorayak: Zorionak langileriarri! Ta Albertok: Eutsi, aurrera bolie! Ta antzeko beste hainbat.

Harro gagoz euren kemenaz eta miretsita gertatutakoaz. Alkartasunak lorturiko miraria izan da hau. Eta miraria dinodanean ez dot esan gura burututako burruka horren emoitza pozgarriagaitik bakarrik; kasu honetan mirariarik handiena alkartasuna bera izan da-eta. Esan ostera, beste non egin daben aspaldi honetan bost hilabete luzeko grebarik lankide despediduak barriro enpresan hasi daitezcan, norberak lanpostua seguru eukita.

Solidaridadea eta burrukarako grina modatik pasauta dagozala emoten dauan garai honetan ereduari izan doguz Cementoseko langileak. Eta baita lemoaztar zein arriararren partetik jaso daben berotasun eta zalantza bako apoioa.

Greba hori hain sinbolikoa izan dan neurrian espero dot martiaren 28a gure memoria kolektiboan markauta geratzea, Arratiako langileen garaipenaren egun moduan.

Maite Artabe

MARTXOA - MARZO						
ASTELEHENA LUNES	ASTEARTEA MARTES	ASTEAZKENA MIERCOLES	OSTEGUNA JUEVES	OSTIRALA VIERNES	LARUNBATA SABADO	IGANDEA DOMINGO
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Biokala
T. 94 631 50 39
Hilategi Zirkular 101
R.P.S. 21/06

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

LEMOA

Cementoseko beharginak lanean barriz, kaleratuak barne



Cementos Lemonako langileak prensaurrekoa emon ostean akordioa ospatzen.

Kaleratutako 16 beharginak barriro lanera itzultzea eta lan erreformeari aurre egiteko klausulak dituan hitzarmena jasoten dauan akordioa sinatu dabe Cementos Lemonan.

Erredakzioa

Horregaitik, lau hilabete eta erdiko greba mugabakoari amaierara emon eta beharrera itzuliko zira la emon eben jakitera apirilaren 27an, Cementoseko beharginak, txanpanez bustitako prensaurreko baten. Zazpi hilabeteko burrukearen ostean, bezperan sinatutako akordioak "lanaren egonkortasuna bermatzen dau" beharginen esanetan. Hitzarmena 2014ko apirilera arte egongo da indarrean.

Hau lortzeako gakoak "beharginen batasuna eta herritarren solidaritatea izan dira. Lan erreformaren armak dituen multinazional bi izan doguz aurrean, baina inork espero ez ebana lortu dogu langileon burrukeari esker" esan eban Jabi Amorrortu enpresa batzordekoak.

Azken hilean Eusko Jauriaritzaren bitartekaritza izan dabe eta honek akordioa lortzean lagundu dau. Dana dala, "gatazkearen

seigarren hilabetera arte ez eban lagundu, eta enpresearen eta ez beharginen eskutik hasi zan bitartekari, gatazkeak enpreseari iges egiten eutsala ikusita" azpimarratu eben enpresa batzordekoak.

Txanpanagaz topa egin aurretik, gatazkan parte hartu daben guztiak zoriondu zituan Amorrortuk eta enpresa batzordeak eskerrak emon eutsiez "Lemoako herriari, Udalari, inguruko enpresari, ELA eta LAB sindikatuari eta Arratiari orokorrean hilabete honeetan erakutsitako alkartasunagaitik".

Lemoako Udal Gobernu taldeak be, bere poztasuna adierazo dau "Cementos Lemonako langileak eta enpresako zuzendaritzak lortutako akordioagaitik".

Gatazkearen kronologia

Gatazka hau 2012an hasi zan, orduan Cementos Lemonan enpresearen jaube zan Portland Valderrivasek enplegu etete espedientea

ezarri ebanean. Aurreakordio bat lortu zan martiaren 21ean, baina "enpresek ez eban hitzarmena erregistratu" eta beste enplegu espediente bat aurkeztu eban 34 behargin kalean ixten zituana.

2012ko irailaren 25ean mobilizazioetan hasi ziran Cementoseko beharginak eta abenduaren 5ean greba mugabakoan.

2013ko zezeileko 25ean, Irlandako CHR enpresek Portland Valderrivasek erosi eutsan Cementos Lemonan.

Martian Eusko Jauriaritza hasi zan bitartekaritza lanetan.

Martiaren 28an, enpresek 16 kaleratuak euren lanpostuak berreskuratzea onartu eban. Beste kaleratuak aurrejubilazioa eta beste akordio batzuk onartu eban, baina hitzarmenari jagokonean enpresek ezarri gura zituan baldintzak lan egonkortasuna ez ebela bermatzen eretxita beharginak ez eban hitzarmena sinatu eta greban jarraitu eben.

Apirilaren 26an, kaleratutako 16 langileak barriro lanera itzuliko zira la eta lan erreformeari aurre egiten eutsien klausulak osotutako hitzarmen kolektiboa sinatu eben.

Apirilaren 27an, beharginak gatazka amaitutzat emon eben.

BEDIA

Alfuseko beharginak greba mugabakoan

Erredakzioa

Alfus FCC enpresearen zuzendaritzek enplegua erreguletako espe-

dientea aurkeztu eban apirilaren 27an. Espediente honek 18 behargin ixten ditu kalean eta "lan-baldintzak txarrera egiten dabe" Tamara Martin LABekoaren arabera. Bediako Alfusen 64 beharginek egiten dabe behar.

Igazko garagarrian enpresek plantillearen berregituraketea egin eban aurrejubilazio eta akordioen bidez. ELA sindikatuak jakinarazo ebanaren arabera, "enpresa zuzendaritzek, berregituraketearen ostean, beharginen ordezkariak

hitzarmen bat negoziatuko konpromisoa hartu eban" baina apirlean negoziatuzinorik ez egoala ikusita, mobilizazioak hasi ziran beharginak.

Apirilaren 8tik aurrera lanixteak egin zituen, "espedientearen konsulta epean, astean hiru egunetan. Apirilaren 29an, barriz, greba mugabakoari ekin deusie behargin guztiak" Martinek jakitera emondakoaren arabera.

BEGITU zarratutako mobilizazio egutegi bat prestatzen egozan.

IGORRE

Batzek ateak zabalduko deutsez herritarrai

Erredakzioa

Bere 50. urteurrenaren ekitaldiak dirala eta, maiatzaren 10 eta 11n ateak zabalduko ditu Batzek. Barikuan, ekitaldi instituzionala izango da eta bertara, fundadoreak eta laguntzaileak, politikariak, Mondragon Kooperatibakoak, bankuak eta zentru teknologiak dagoz konbidautu, beste batzuen artean. Zapatuan, barriz, herritarrai zabalduko deutsez ateak Igorreko lantokiak: fundadoreak eta laguntzaileak, erretiroa hartu dabenak, bazkide eta beharginak, familiak, hornitzaileak eta Arratia osoa dagoz konbidautu.

Ekitaldi instituzionalean 80 persona inguru batzea espero dabe antolatzaileak: horreetatik 70 konbidauak izanik. Egun horretan fundadoreen ohorezko monolitoa desestaltiko da. Hurrengo eguna, ate irekien eguna izango da eta 700 persona hurreratuko dirala aurreikusuten dabe Batzekoak. Honek danak atendiduteko karpas bat ipiniko dabe eta txosna eta umeentzako puzgarriak egongo dira enpresako instalazioetan.

Batz 50 liburua eta bideoa

erakutsiko jakie bai instituzinoai, bai arratiarrai.

Egitaraua

Maiatzak 10, barikua

10:15ean, harrerea.
10:30ean, aureskua eta fundadoreen ohorezko monolitoari es-talkia kendu.
10:45ean, Batz 50 aurkezpena eta opari banaketea.
11:30ean, kafea.
11:30etik **13:00**etara, instalazio-eta bisita.
13:30ean, bazkaria.

Maiatzak 11, zapatua

10:45-11:00 Batz 50 aurkezpena.
11:00etatik, **14:00**etara Argazki lehiaketea.
11:00etatik, **15:00**etara, puzgarriak eta umeentzako jolasak.
11:00etatik, **14:00**etara, instalazio-eta bisita.
11:00etatik **16:00**etara txosna. Gainera:
11:00etan, ardo dastaketea (lehenengo taldea). **12:30**ean, herri kirol erakustaldia. **12:45**ean, ardo dastaketea (bigarren taldea). Eguerdian, txahal pintxoak egongo dira.



Batz.

ZEBERIO

Sutegi baserria erosteko epea zabalik

Erredakzioa

Zeberio Sautuola 12an dagoan Sutegi baserria erosteko eskeintzak aurkezteko epea zabalik dago maiatzaren 17ra arte. Hasikerako prezioa 689,29 eurokoa da eta agiriak eta informazioa udal-txean jaso daitezke. Eroslea XVII. mendeko etxe hau konpondutera konprometidu behar da eta konponketeak eraikinaren ezau-garriak mantentidu behar ditu.

LEMOA

Bilduk Liburu Baltza izeneko aldizkaria argitaratuko dau

Erredakzioa

Aldizkarian, "aurreko legegintzaldietako gobernu taldeen gestino iluna" salatu eta gaiak atalka argitaratzen joango dira. Helburua "gardentasunagazko konpromisoan beste pausu bat emotea da" Bilduren arabera. Bilduk beste aldizkari bat be argitaratzen dau Abagunea izeneko eta bertan euren proiektu eta ekimenen barri emoten dabe.

LEMOA

Djembe soinuak eta herri kirolak Aste Kulturalean**Erredakzioa**

Maiatzaren 13tik 19ra, Aste Kulturalean antolatu dabe Lemoan. Ekintzak, eskolan, liburutegian eta Kulturgunean izango dira, baina kaleak be hartuko dabez hamabost bat ekitaldik. Afrikak protagonismo berezia izango dau eta hainbat ekintza antolatu dira kontinente honen ohitura eta jolasak gai hartuta. Herri kirolak be eskeiniko jakie egun bat. Liburutegiak eskolan emongo dau zerbitzua aste honetan zehar.

Aste Kulturale Arratia Musika Eskolako ikasleen kontzertuagaz hasiko da. Musikari gazteak Andra Mari Eleizan joko dabe hilaren 13an, arrastiko 19:00etan. Eskolak bere aldetik, hainbat ekintza antolatuko ditu aste honetan zehar egiteko. Holan, literatur berbaldiak idazleakaz egingo ditue, marrazkilaria eskolan izango da bisitan eta munduko jolasak egongo dira, beste gauza askoren artean.

Baina ez bakarrik aterpean, ikuskizunak Lemoako kaleak

**Djembe-a jotzen.**

hartuko dabez eta hilaren 17an, zapatuz, Kultur Guneko plazan kale antzerkia egongo da gaueko 22:00etan. Hurrengo egunean, leku berean, giro afrikarra izango da nagusi. Izan be, goizean, "Hau da Afrika!" izeneko puzgarri erraldoia eta tailerrak egongo dira eta arrastian, gazteentzako perkusino tailerra eta jantza eta perkusino afrikarra ikuskizuna Djembe Kan taldearen eskutik.

Domekan herri kirolak

Zapatuan ekitaldiak lotzean dituan gaia Afrika bada, domekeak herrikirolak hartuko ditu gaitzat. Holan, goizean, Elizondoko Kultur Guneko plazan, Mendieta Herri Kirol taldeak aizkora erakustaldia antolatu dau eta arrastian, Lemoako Esku Pilota taldeak antolatuta pelota tailerrak, pelota jokoak eta

erakustaldia izango dira frontoian.

Argia emonaldiak *Den-dena kendu ziguten* dokumentalagaz zarratuko dau astea.

Maiatzak 13, astelehena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Andra Mari eleizan.

Maiatzak 14, martitzena

17:00etan, Afrikako jolasak eta ohiturak eskolan, Afrikatik etortako gurasoen eskutik (ume zein gurasoentzat).

Maiatzak 15, eguaztena

17:00etan, "Higiene del sueño" berbaldia Jubiladuen Etxean. Hizlaria: Monika Salguero Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

Maiatzak 16, eguena

19:30ean, Lemoako memoria historikoaren batzorde herrikoiauren aurkezpena eta *Gernikako bonbardaketa* dokumentalaren emonaldia Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

Maiatzak 17, barikua

15:00etan, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleen emonaldia kiroldegian.

22:00etan, *Anplag* kale antzerkia, Elizondoko Kultur Guneko plazan. Ondoren, Lemoako II. Narrazino Lehiaketaren sari banaketea.

Maiatzak 18, zapatua

Elizondoko Kultur Guneko plazan. **11:30**etik **13:30**era, "Hau da Afrika!" puzgarri erraldoia eta tailerrak.

18:00etan, gazteentzako perkusino tailerra.

20:00etan, jantza eta perkusino afrikarra ikuskizuna Djembe Kan taldearen eskutik.

Maiatzak 19, domekea

13:00etan, Mendieta Herri Kirol taldeak antolatuta, aizkora erakustaldia Elizondoko Kultur Guneko Plazan.

17:00etan, Lemoako Esku Pilota taldeak antolatuta, pelota tailerrak, pelota jokoak eta erakustaldia frontoian.

19:00etan, "Argia" emonaldian *Den dena kendu ziguten* dokumentala Elizondoko Kultur Gunean.

Aste osoan zehar: eskoleak hainbat ekintza antolatuko ditu, besteak beste: literatur berbaldiak idazleakaz (Julen Gabiria...), marrazkilaria eskolara bisitan, munduko jolasak...

Udal liburutegia eskolan: liburutegi zerbitzua eskolan. Maiatzaren 17an liburuak zozketatuko dira.

ARRATIA

Mendi Turismoa bultzatzeko Gorbeialde eta Enkartur batu dira**Erredakzioa**

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek eta Enkartur Enkarterrietako Turismo Alkartek Basquemountains izeneko produktua abiatu dabe Gorbeialde Parke Naturalean eta Enkarterrietan mendiko turismoa bultzatzeko. Ekimen hau aurreindaria da Erkide Autonomoan, lehenengo aldia da eta, mendiko turismoa bultzatzeko produktu bat sortzean dala.

Horretarako, urtebete iraungo dauan programazio estrategikoa osatu dabe. Beste gauza batzuen artean, "turistarengana zuzenean heltzeako" plan honek turismo azoketan edo merkataritza-gune handietan egotea proposatzen dau.

Holan, apirlean, Kataluniako Nazi-noarteko Turismo Azokan aurkeztu dabe Basquemountains produktua.

Harrera ona proiektuak Kataluniako Turismo Azokan

Iñaki Saenz de la Fuente, Gorbeialdeko Turismo arduraduna sano pozik agertu da produktu barri honek Katalunian izandako harrera dala eta. "Kataluniako Turismo Azokan harrera bikaina izan dau produktu honek. Katalanak oso bezero inportanteak dira Gorbeiarako eta urtero etorten dira milaka turista gure eskualdera. Ondo ezagutzen dabe Euskal Herria eta oso interes handia daukie ez bakarrik gure urburuetan eta kostaldean, gure mendi eta landa inguruetan be bai. Horrexegaitik

gure Basquemountains proiektua oso ondo hartu dabe".

Azokan, mila persona baino gehiago atendi dabez zuzenean, euren oporraldietako planetan laguntzen, "Gorbeia Central Park-eko ekintzak promozionau doguz gure eskualdeko ostatuak aurkeztuz eta hainbat ibilbide eta proposamen gastronomiko emoten. Gainera, katalanak Basquemountains markea oso errez errekonozidu dabe".

**Kataluniako azokea.**

ZEBERIO

Tokiko Agenda 21 Plana 2013-2020 onartu dau Udalak**Erredakzioa**

Zeberio Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan barria onartu eban apirilaren 25ean. Plan honek 84 ekintza ditu guztira, 28 programatan bananduta eta 7 ildo estrategikotan sailkatuta. "Ingurumen, gizarte eta aspektu ekonomikoak modu orekatu batean lantzean dira" Udaltalde 21en arabera.

Plan hau diseinatzerakoan

hainbat eragilek parte hartu dabe: udal teknikariak, talde politikoak eta herritarrak... Azken honeek parte-hartze foroak, on-line bidezko galdetegiak eta eskualde mailan egin diran inkestak erabili ditue ekarpenak egiteko.

"Zeberioko ikuspegia, hau da, datozen urteotan zelango udalderia gura dan azaltzen dauan adierazpen laburra" aitatzekoa dala dinoe Udaltalde 21 Jasangarritasun Bulegotik.

ARRATIA

Maiatzaren 1a, enplegu eta eskubide sozialen aldeko burrukea**Erredakzioa**

Maiatzaren lehenean, Arratiako beharginak enplegu eta eskubideen alde burruka egitera deitu zituen sindikatuak. Behargin asko -enplegua daukien zein ez daukien- Bilboko manifestazio handira joan ziran. Beste askok eskualdean egin zituen euren aldarrikapenak. LAB sindikatuak

Lemoatik Basaurirainoko martxea antolatu eban "Enplegua borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria" lemapean. 10:00etan urten ziran Lemoako udaletxetik 100 lagun inguru.

Beste sindikatuak Bilbora deitu zituen beharginak. ELAK eskubide sozialen aldeko burrukea izan eban ardatz. CCOO eta UGT sindikatuak be deialdi bateratua egin eben Bilbon.



ZEANURI

Bizkaiko kurutzerik zaharrena ikusgai**Erredakzioa**

Altzustako Santa Lutzi ermitan topautako kurutzea, Bizkaiko kurutzerik zaharrena da. Datazi-noak 1.250 urtearen inguruan kokatzen dau kurutze gotiko hau. Bilboko Eleiz Museoa dago gordeta, baina maiatzaren 12an Zeanurira ekarriko dabe Santa Lutzi Andra Mari parrokiara ibilbidea egiteko.

Ermitea auzolanean konponetzen egoan lagun talde batek topau eban kurutzea 1990ean. "Balio handikoa da eta holango gauzak ezin dira euki parrokiaren. Gainera museoa ondo konserbata dago ikerlari eta bisitarien ztat ikusgai".

Arratiako Eleizak, Udalaren laguntzeagaz, hilaren 8rako berbaldi bat be antolatu dau. Ander Manterola etnografo zeauriztarrak herriko beste kurutzeen gainean egingo dau berba, udaletxeko Pleno Aretoa, arrastiko zortziretan.

Altzustako kurutzea

Kurutzea brontzekoa da, 17 cm. inguru ditu eta Jesukristoren irudia eta letra batzuk agertzen dira bertan. "Beste berezitasun bat be badauka, patriarkala da; hau da, beso bi ditu. Bizkaian bi baino ez dagoz holangoak, sasoi haretakoak" azaldu deutso BEGITURI Arratiako Eleizak.

ZEANURI

Baserriaren izen handiko feria San Isidro egunean

Izen handia dauka Zeanuriko San Isidro eguneko feriak eta urtean-urtean jente piloa hurreratzen da, ez bakarrik inguruko herrietatik, Bilbotik be bai, baserri giroaz disfrutatuko eta ganadu ederrak ikusteko azokan eta idi-probetan.

Erredakzioa

Jaia azokan hasiko da hamarretan eta egun osoa hartuko dau. Aurreko eta hurrengo zapatuetan be egongo da zer egin eta zer ikusi Zeanurin.

Aurtengoa XXXII. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea da. Azokan, ganadua gobernatzeko lanen erakustaldia egongo da, eta arrastian, idi probak. Zeanuriko Mintegi baserriko idiak Gatika eta Mungiako idiakaz neurtuko dira.

Hilaren 18an, barriz, sega erakustaldia egongo da. Egun horretan, Torreko soloan Zeanuriko segalarien arteko lehia ikusteko aukerea egongo da. Eta gauean, bertso afarian Egañak eta Lizasok animauko dabe giroa euren bertsoakaz.

Egitaraua

Maiatzak 11, zapatua

19:00etan, Udaberriko Kontzertuak Andra Mari parrokan: Xemeingo Abesbatza, Zornotzako Andra Mari Ikastola eta Zeanuriko Abesbatza.

Maiatzak 15, eguaztena

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXII.

edizinoa. Azokearen barruan, hurrengo ekintzak egingo dira:

- Ardiak eraitsi.
- Gaztagintzea.
- Ardi mozketa lehiaketea.
- Artxo errearen dastaketea.

11:00etan, mezea San Isidro eleizian.

12:30ean, Arrikibar Dantza Taldearen saioa plazan.

13:00etan, sari banaketea plazan.

18:00etan, idi probak probale-

kuan. Ididunak: Jon Ander Bilbao (Gatika), Iñaki Lopategi (Mungia) eta Julen Etxebarria (Zeanuri) izango dira.

Maiatzak 18, zapatua

18:00etan, Zeanuriko segalarien arteko lehia Torreko soloan.

19:30ean, triki-poteoa.

21:00etan, bertso-afaria Kultur Etxean. Bertsolariak: Egaña eta Lizaso.



Behiak San Isidro ferian.

BEDIA

Aurrekontua onartu da

Erredakzioa

Bediak 1.094.260 euroko aurrekontua eukiko dau 2013ko ekitaldian. Kopuru horrek % 39ko murrizketea dakar eta orain dala hamar urteko kopuruetan kokatu da. Udalak Eusko Jaurlaritzaren-gandik % 9 gitxiago eta Udalkutxa funtsetik % 6 gitxiago jasoko dau. Dana dala, ez ditue udal tasak igon, ibilgailuen zergea izan ezik.

Udal iturrien arabera, Osoko Bilkuran onartutako urte honetako aurrekontuari jagokonez, "partida guztiak banan-banan berrikusi behar izan dira, eta beheranzko

berrikuspenak euki dabez, Kultura Sailaren partidearen % 1,5etik hasi eta inbersinoen partidearen % 17raino".

Inbersinoen atalak 121.000 euroko hasikerako aurrekontua dauka, eta ia diru guztia Ludoteka bariaren eta Gazte Txokoaren proiektuetara dago bideratuta. Halanda be, partidea handitu egin leiteke, laguntza bariak heltzean badira.

Udalaren zorpetze txikia nabarmendu gura dabe udaletik, "izan be, 52.667,70 euroko zor txikia baino ez dauka Udalkutxagaz, hau da: 52,67 euroko zorra biztanle bakoitzeko, besterik ez".

ARRATIA

Arratia Institutuan euskera hutsean ikasitako afaria

Erredakzioa

Hogetabost urte bete dira Arratia Institutuan euskera hutsez ikasi eban lehengo taldeak institutuko ikasketak amaitu ebazala. Hori dala eta, 1987/88 ikasturtean institutua itxi ebenak bagilaren 15ean batuko dira barriro afari bat egiteko Arantza Hotelean eta alkarregaz orduko denporetako gauzak gogoratzeke. Hogeiki ikasle inguru ziran talde haretan eta gehienak Arratian biziten segiduten dabela dino Zuriñe Etxebarria taldekoak. Talde honek euskera hutsean ikasten ez eben beste

talde bigaz hartu-emon handia eukan eta horreek be deituta dagoz afaria.



AREATZA / ZEBERIO

Santa Kurutzeko jaia Areatzan eta Zeberion

Erredakzioa

Gure auzuneetako lehenengo jaiak hasi dira udabarrigaz batera eta maiatzaren 3aren inguruan Santa Kurutzeko jaia (Santi Kurutze, Areatzan; Santa Kurtze Zeberion) ospatuko da izen horretako ermita eta auzuneetan.

Santa Kurutze eguna barikua da eta egun horretan txupina bota eta hiru eguneko jaiak emongo deutsee hasikerua Zeberioko Santa Kurtzeko bizilagunak. Ermita inguruko erromeria, gastronomia eta domekarako idi-probak pres-tatu dabez Santa Kurtzen. Arratia eta Txorierriko idi tudanka gazteak neurtuko dira, Zeanuriko 1.000 kiloko harriagaz, 20 minutuko txandatan. Kinielak egiteko aukerea egongo da eta proben bitartean,

Zeberioko trikitilari gazteak animauko dabe giroa.

Areatzatik ermitara bide zaharretik

Areatzan maiatzaren 4ean ospatuko dabe jaia. "Santi Kurutzera jatorrizko bide zaharretik igoko gara. Bidea zenbait puntutan garbitu egin da, baina orokorrean nahiko egoera onean mantendu izan da urteotan" azaldu deutso BEGITURI Sara Gutierrez Areatzako Udaleko zinegotziak.

Egitarauak

Areatza

Maiatzak 4, zapatua

11:00etan, urtekerea plazatik. Santa Kurutzera igoera bide zaharretik. Karpo-Altzorripe-Santi Kurutz.

12:00etan, Santi Kurutzen mezea.

12:30ean, barauskarria. Iker eta Argi trikitilariak animauko dabe giroa.

13:30ean, plazarantza bide zaharretik.

14:00etan, Areatzako plazan hankapaluak eta buruhandiak musikaz lagunduta.

Zeberio

Maiatzak 3, barikua

11:45ean txupina eta kanpai hotsa Santa Kurtze auzunean.

12:00etan, Santa Kurtze ermitan mezea eta erramuen bedeinkapena.

19:30ean, tortilla txapelketea.

21:00etan, tortillen aurkezpena, sahieskiak parrillan, Koldo Etxebarria trikitilaria, suzko zezena eta buruhandiak.

Maiatzak 4, zapatua

10:00etan, Austari Mendi Taldeak antolatuta, III. Untzeta Mendi Martxea.

14:00etan, umeentzako bazkaria Santa Kurtze landan.

14:30ean, herri indabada jana Santa Kurtzen.

16:30ean, umeentzat olgetak eta serigrafia tailerrak.

17:00etan, XX. Santa Kurtze Mus txapelketea txosnan.

20:00etan, txokolata eta bizkotxoak.

Maiatzak 5, domekea

12:30ean, idi tudanka gazteen desafioa. Txorierriko Arratiaren kontra.

15:00etan, Helbarrengo etxeetan sendien eta konbidaduen bazkaria.



Santi Kurutze ermita.

BERTHA GAZTELUMENDI

"Biolentzia giro baten errezago emoten dira biolentzia mota gehiago"

Mariposas en el hierro filma ikusteko aukerea egon zan Areatzan apirilaren 19an beteta egoan Udal Aretoan. Dokumentalak biolentzia desbardin biktima izandako andren testigantzak jasoten dauz eta andra honeek egoera horrerri zelan emon deutsien buelta bakegintzearen alde behar egiten be erakusten dau.

Edurne Brouard protagonistetako bat, Arantza Madariaga CIINPIkoa eta Bertha Gaztelumendi filmaren zuzendaria egon ziran bertan eta azken honegaz egin dau berba BEGITUK biolentzia eta bakegintzearen gainean.

Erredakzioa

Mariposas en el hierro zure lehenengo filma da? Ez dozu film laburrik egin? Zergaitik dokumental bat?

Ez, hauxe da nire lehen luzea. Aurretik nire lanagaitik erreportaje eta alkarrizketa piloa egin dodaz, edozein kazetari jagokon moduan. Ni zehazki ikus-entzunezkoen alorrean mobidu naz gehien bat.

Baina neurri honetako saltsetan sartzean nazan lehen aldia da. Eta zergaitik dokumentala? Esan gura nebanerako ondoen moldatzen dan formatua dalako.

Zelan sortu zan film hau egiteko idea edo premia? Zergaitik andrak sufriduten dabezan biolentzia desbardinak?

Hau enkargu bat da. CIINPIK egin eustan. Izaskun Moyuak eta Arantza Madariagak. Andrak eta bakea, gure testuinguruan landu gura eben eta hari horretatik tiraka hona heldu ginan.

Gizarte guztiak sufriduten dau biolentzia, gizonezkoak eta andrazkoak baina ezin ukatu, datuak hor dagoz, ikerketak hor dagoz, eta eguneroko albisteak hor dagoz baita be, andrazkook andrak izateagaitik biolentzia berezi bat jasoten dogula: genero indarkeria, mila aurpegi dituana. Eta zergaitik, podere desorekatu bat dagoalako gizon eta andrazkoen artean, labor-labor eta sinple-sinple esanda. **Euskal Herrian biolentzia modu bat amaitu da. Ze eragin dauka horrek beste biolentzietan? Ona, txarra ala ez dauka eraginik? Azaldu apur bat.**

Nik uste dot eta adituak holan esaten dabe baita be, biolentzia giro baten errezago emoten dirala biolentzia mota gehiago eta bio-

lentiaren intensidadeak errezago egiten dau gora.

Gure errealdetan, biolentziagaz hazi gara, batzuk behintzat, gure egunerokotasunaren osagaia izan da. Eta nik uste dot horrek eragiten dauala, zelanbaist be indarkeriaregatzko permisiboak egiten gaitu.

Bakea lortuko da? (inoz, inon?) Bake eregite horretan zelangoak dira genero hartu-emonak?

Sinistuko ez bagendu bakearen alde aurrera egiten ari garala, gaur egun ez litzatekez izango horrenbesteko ahalegin eta baliabide bakearen atzetik.

Lortuko dogu, duda barik, agian pentsetan ez dogun modu baten, ezin asmatu ze bide hartuko dauan eta ze itxura desbardin izango dauan ibilbide horrek. Luzea izango da. Beste esperientzien arabera, ikusita dago luzea eta gata izango dala. Batzuetan abiada hartuko dauan prozesua izango da eta bestetan ataka baten geratua izango da, oraingoan legez.

Genero hartu-emonak bake eraikuntzeari lotuta dagoz. Ez dago benetako bakerik ezta iraunkorrik be andrak sufriduten dituen biolentziak jarraituten daben bitartean.

J. Galtung gatazkaren ebazpenetan norvegiar adituak *positive peace* esaten deutso, giza eskubide guztien urraketa guztiak gainditzten dauan bakeari. Hau da, gure gizartean modu estrukturalen emoten diran indarkeri edo giza eskubideen urraketa guztiak aurre egin behar jakie, benetako bakea izan daigun. Horreen artean, eta batez be, andren kontrako indarkeriari egin behar jako aurre.

Feminismoak aspaldi alda-



Bertha Gaztelumendi *Mariposas en el hierro* filmaren zuzendaria.

"Gure gizartean modu estrukturalen emoten diran indarkeria edo giza eskubideen urraketa guztiak aurre egin behar jakie, benetako bakea izan daigun"

rrikatu arren, seguru asko jente askori arraroa egingo jakon andrak andra izateagaitik jasandako biolentzia, biolentzia politiko moduan tratau izana. Holan da?

Bai, "personala politikoa da"

esaten dau feminismoak. Baita zentzu komunak be. Politikea ez da gizarte antolaketaz arduratzen dan zientzia? Antolaketa horretan ezinbestez etxean egiten dan lana eta etxetik kanpo egiten dana zutabeak dira. Hori da gure bizimo-

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIOTERAPIA 
Balneario Areatza
Tania Fernández Santiago
COL 1718
Tel: 94 657 54 50
www.gruposasobide.com

Kendall Languages
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpene Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

duaren oinarria, eta horri heldu behar jako eta urtenbide justu eta orekatua emon behar jako, bazterkeriarik barik, mundu guztiak bere bizitzan aukera bardinak izan daiazan.

Nagore Laffageren ama bitan izan da andren kontrako biolentziaren biktimea bere alabaren personan. Lehenengoa Nagore hil ebenean, bigarrenan homizidioko epaia jaso ebenean hiltzaileak. Zer egin, justizia eta legea bat ez datozenean?

Argi dago oso sarri emoten dan kontua dala, eta horren ondorioz, Marcela Lagardek filman esaten dauan moduan, gizarteak, jentek ez dau justizian sinisten. Sistema hau ustel dago eta ez dau funtzionetan.

Tamara Muruetagoinaren testigantzeak be beste biolentzia sistemiko eta ukatu baten aurrean ipinten gaitu: torturearena. Donostiako zinemaldiko kronikan El Paisek zera dino: "Tamara Muruetagoina, hija de Esteban, un médico de Oiartzun que falleció después de ser detenido por un ataque al corazón".

Ez dago ondo esana, inondik inora. Esteban Muruetagoina hil eben. 9 egunez atxilotua eta inkomunikata Madrilan egon eta gero hil zan eta. Handik atera eta "egonaldi" horrek, bere gorputz eta buruan itxitako zantzuak ikusita torturatua izan zan. Torturearen ondorioz hil zan.

Egia, justizia eta erreparazioa. Bakea lortzeako beharrezkoak dira hirurak? Hirurak izan ezean ezin da aurre egin? Biolentzia modu batzuetan inpunidadea oso zabalduta dago, beste batzuetan, egia be ez da onartzen... holango dokumentalak laguntzen dabe egia zabaltzen, baina bide luzea barruntatzen da aurrean.

Hirukote hori beharrezkoa da biktima guztiak onartuak eta erreparatuak izateko; Gizarteak kolektibo moduan pasau dana jakiteko, bere iraganaren begirada kritikoa izateko eta egiteko; konfiantzea bultzatzeko; eta alkarbizitzaren oinarriak eregiteko.

Egia da, zigorgabetasuna oso zabalduta dagoala; bestetik, egia asko estali dira, horren kontra jo behar da. Justizia eta bakeak eskutik joan behar dabe, halabeharrez, kon-



Edurne Brouard dokumentaleko irudi baten.

fiantzea sortu gura bada. Bakearen oinarrian giza eskubideak dagoz, justua dana eta ez dana saihesteko gai diranak.

Giza eskubide guztien errespetua eta defentsan sinisten dauan gizarte bat bultzatu behar da.

Ze harrera izan eban dokumentalak Areatzan? Erakutsi dozun beste lekuetan antzeko harrerea izan dau?

Orain arte, oso harrera ona izan dau, eztabaida eta gogoeta eragin ditu, oro har. Areatzan holangoa

izan zala iruditu jatan baina hori zeuek esan beharko dozue.

ETBko korresponsala izan zara luzaroan Latinoamerikan. Esperientziaren zelango balorazinoa egiten dozu? Zertan aldatu da Bertha Gaztelumendi han bizi eta hona etortzekoan?

Duda barik esperientzia eta egoera desbardinak ezagutu izanak, horreetako asko eta asko mingariak gainera, errealidadearen beste ikuspuntu bat emoten deutsu.

"Sistema hau ustel dago, eta ez dau funtzionetan"

Arratiako Musika Eskola
IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

2013/14

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak
10:00etatik - 13:00 arte
Tlfnoa: 94 631 73 52
- Arratsaldean, zentroetan

arratia.musikaeskola@gmail.com

RAID

Arratiako II. Raiderako
dana prest Areatzan

Erredakzinoa

Maiatzaren 11n, Areatzan egingo dan II. Arratia Raiderako, hasi dira taldeak izena emoten. Goizeko 10:00etan hasiko da kategoria ofizialeko Raida eta 11:30ean Easyraid deritxana.

Aprilean Oionen hasi zan Euskal Herriko ligako lehenengo proban ia 60 talde batu ziran eta marka hori hobetzea da antolatzaileen helburua Xabier Iturriagaren esanetan, eta horretarako "Arratiako jentea animau gura dogu". Mendiko bizikletan ibilteko pista politak, korrika egiteko sendero ederrak eta beste hainbat leku ikusgarri ikusteko aukerea eukiko dabe, euren artean, Arratian da-

goan urjausirik politenatarikoa" dino Iturriagak.

Honezaz gainera, eta proba berezi eta aukerakoen barruan, patinen proba labur bat egongo da eta iparrratza erabili beharreko probaren bat be bai. Patinen proba aukerakoa dala gogora arazo gura dabe antolatzaileak "jentea ez deuto bildurrik euki behar". Antolakuntzeak BEGITU aurreratu deutanaren arabera herri kirolai be tartexo bat egingo deusee.

Halanda be, kategoria ofizialek aparte, kategoria laburra be badago. Hiru ordu eta erdikoa da gehienez, eta kirol hau zer dan jakin gura dabenentzat egokia. Distantzia eta denpora gixiangoan, danetik egingo dabe eta.

Gogoratu be, zapatuan, bazkaria, sari banaketea eta opari zozketearen ostean, egunak jarraipena eukiko dauala Gaztetxean, Mariskal Dejai-

gaz.

Informazio gehiago eta inskripzioak egiteko <http://xegiba-aiara.blogspot.com.es/> helbidera jo.



FUTBOLA

Vallecasera
Athletic
ikustera

Erredakzinoa

Areatzako Gorbeako Gurutzea Athleticeko Peñak Vallecasera bi-jea antolatu dau bagilaren lehenengo astegienerako Athletic eta Rayo Vallecanoren arteko partidua ikusteko. Joan gura dabenak maiatzaren 19ra orduko emon behar dabe izena Motxo Tabernan. Prezioa 40 eurokoa da Peñako kideentzat eta izena emoterakoan erdia ordaindu behar dabe. Autobusez biajea, bi personetzako logeletan ostantu gastuak eta partiduko sarrerearen prezioa dagoz prezio horren barruan. Peñakoak ez diranak biajearen gastu guztiak ordaindu beharko dabez. "Athleticen aurtengo denporaldia oso ona ez bada be, jentea animau gura dogu Madrileran" dino antolatzaileak.

SEGA

Irati Astondoak erakustaldia
egin eban Artzentalesen

Erredakzinoa

Irati Astondoa nagusitu zan Artzentalesko San Hermenegildo jaietako sega torneoan.

Aprilaren 13an izan zan eta bera zan lehiari parte hartu eban andra bakarra. Bigarren Pabi Astondoa zeanuriztarrek egin eban; eta hiru-garren, Bizkaiko Txapelketan bigarren egin eban Angel Maguregik.

San Hermenegildo auzoko jaietan segako torneo bat egoten da urtero, 200 metro koadro ea nok ebagi arinen. Bertako jentea izaten da parte hartzailea baina aurtan Zeanuriko aita-alabak konbidatu dabez. "Nik eurekaz batera lehiatutea gura eben eta animau egin nintzan. Lehiaketea hasi eta ezustean lehenengo postuan amaitu neban. Sinistu be ez neban egiten baina halantxik izan zan. Danok agoa zabalik ge-

ratu ginan neu barne. Egia esan azken aldiari asko entrenetan nabil eta horrek lagundu eustan" kontau deuto BEGITU Irati Astondoa segalariak.

Gogor entrenetan

Aurtan beste hiru neska segalari



Irati, Pabi aita eta Angel Maguregigaz.

animau dira eta I. Euskal Herriko Sega Txapelketea egingo da lan luzean, 30 minutuan, eta horako gogotsu dabilela entrenetan dino Astondoak. "Egia esan, behar ona egiteko gogoaz noa eta entrenamentuetan oso ondo nabil" dino.

Arratian segalaria ikusteko aukerea izango dogu maiatzaren 18an, Zeanuriko I. Segalarien 100 metroko Txapelketea egingo da eta. Zazpi edo zortzi segalari eta segalari ohi batuko dira bertan "erakustaldi polit bat" eskeintzeko.

FUTBOLA

Arratiarrak
taularen
erdikaldean

Clara Luja Azpiri

Andrazkoen taldeak bana bardindu eban denporaldiko azken partidua Berrio-otxo taldearen kontra. Jardunaldi horretan bardindu eta aurreko partidu biak irabazi ostean, taularen erdian geratu da, zazpigarren postuan, eta holan amaitu dau ligea taldeak, berrogeitabost puntugaz.

Gizonezkoen taldeak, barriz, Galea A taldearen kontra jokaturako partidua irabazi eban, hiru eta bat. Azken bost partiduetatik bat bakarrik galdu dabe eta hogeta hamaikagarren jardunaldiaren ostean klasifikazioaren seigarren postuan dagoz berrogeita bost puntugaz. Hurrengo partidua Urbietan izango da, maiatzaren 4an (zapatua), arrastiko sei-retain, Iturigorri A taldearen kontra.

Batzar Orokorra

Maiatzaren 25ean arrastiko 18:00etan osteran Batzar Orokorra egingo dau Peñak Udaleko Areatan, parte hartuko daben artean gainera Athleticeko kamiseta bat zozketatuko da. Eta gauean Aldamin Jatetxean egingo dan afaria dagoz konbidatuta beharra dago Motxo Tabernan maiatzaren 18ra orduko, 18tik gorakoak 15 euro eta 18tik beharokoak 6 euro ordaindu beharko dabez.



indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda

sew
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 ISORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

www.begitu.org

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDASUN HIGIZIENEN
ASIGURULETAN

Beltze Arana, 3-3. floor. 48 671 71 61 - Fax: 48 671 94 61 - 48140 (Gorri)

axular
kultur dibertu

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

HERRI KIROLAK

Zeanuri-Dima "errebantxea"

Irati Urien

Apirilaren 13an egin zan lehenengo kanporaketea, Dimako frontoian. Zeanurik 13 puntu eta Dimak 8 izan zan emoitzea. Errebantxarako ordua da orain. Hil honen 4an, zapatua, Zeanuriko frontoian neur-tuko dira herri biak, arrastiko sei-retain. Trikipoteoa egongo da gero herritik zehar eta bederatzietako afariaren ostean, erromeria. Afarirako tikeak Zeanuriko Jubiladue-

nean eta Dimako Herrikoan erosi daitekez. Irati Astondoa, parte hartzaile eta antolatzailearen esanetan, "nahiz eta Zeanurik irabazi, ez zan diferentzia handirik egon. Eta kontuan hartu behar dana egunak sano polito urten ebala da". Bigarren norgehiagoka honetan esperantzea frontoia betetea dala dino gazteak. Ze espektatiba daukazan galdetuterakoan, "dimoztarrak fuerte etorriko dira eta papel on bat egingo dabe" erantzun dau.


BOLA JOKOA

Zornotzako taldeak nagusi komarkalean

Erredakzioa

Bola jokoa Zornotzako taldeai inork ez deutse kerizperik egiten. Izan be, komarkalean, txapelketaren lehenengo hiru postuak Zornotzako hiru talderentzat dira: San Migel doa aurrena, Gisetza bigarrena eta hirugarren postua, San Bartolome taldearentzat da. Arratirak, barriz, Lemoa, Oba eta Artaun-Sankristobal, komarkalaren seigarren, hamaikagarren eta hamahirugarren postuan dagoz, hurrengo hurrengo.

Bizkaiko Banakako Txapelketea



Argazkia: Edorta Zurinaga.

eta binakakoa ostean hilaren 4 eta 5ean, eta 11 eta 12an, izango dira San Bartolome bolalekuan, Zornotzan 16:00etatik aurrera. Bertan Arratiako taldeak be hartuko dabe parte.

Euskadikoan, barriz, taldeak aukera gitxi daukie parte hartzeako, baina banakakoan sailkatzeako aukerea badaukie Lemoako hiru bolarik, Iñigo Ortuzarrek, Ibon Manzanedok eta Imanol Artabek, hain zuzen be.

Euskadiko Txapelketaren finala Tertangan (Araba) izango da bagilaren 8an.

MENDI MARTXEA

Ubide mendizalez beteta

Erredakzioa

Ubideko Biran 750 mendizalez hartu dabe parte aurten. "Erdia inguruk egin eban ibilbide luzea eta beste erdiak laburra" antolatzaileen esanetan. Parajearen edertasunak jente asko erakarten dau eta aurten, gainera, eguraldiak lagundu egin dau. "Hauxe da hartu geinkean kopururik handiena eta balorazino sano positiboa egiten dogu. Partaideak be gauza bera adierazo deuskue emaillez" dino Agurtzane Bengoak udaletik.

Ibilbidea egin ostean, sagardoa eta jana dastatzeko aukerea izan



Ubide martxa egunean.

eben mendizaleak eta gero Ubideko bertako produktuakaz betetako otzarearen zozketea egin zan. Ondategi herriko bizilagun batek eroan eban otzarea.

Beste mendi martxa bat be egon zan domeka haretan, Bizkaiko Mendi Federazioak be eskolameakaz egin eban urtekerea Oketara.

MENDIA

Tontoretik mila metrora Txikon

Erredakzioa

Nuptse mendiko bigarren kanpamentuan (6.850 m) da Txikon, hau da, tontoretik 1.000 metrora, eta, BEGITU zarratukeran, tontorrari ekiteko eguraldi onaren zain ego-

zan lemoaztarra eta bere espedizino kidea Jose Carlos Tamayo. Izan be, honeek izango dira seguruenik tontorra egiten saiatuko diranak, Madariagak katarroa harrapatu dau eta seguru asko ezin izango dau saiakerea egin.

Espedizino honetan helburu bi daukaz Txikonek, gitxitan zapaldua izan dan Nuptse (7.861 m) zapaldueta eta Lhotse (8.516 metro), munduko laugarren mendirik altuena igotea.

KICK-BOXING

Euskadiko txapela eta Espainiako brontzezko domina Ugaldek

Erredakzioa

Aitor Ugalde zeberioztarrak brontzezko domina irabazi eban Espainiako kick-boxing txapelketan, full contact modalidadean. Txapelketaren finalurrekoa apirilaren

27an izan zan Madrilen eta 28an finala.

Hirugarrena eginda ez zan gus-tura geratu Ugalde "Gogor entren-au dot eta hobeto geratu gura neban, baina Espainiako txapelketea da eta sano jente ona egon da"

dino kirolariak.

Beste txapel bi martian

Zeberioztarra sano denporaldi ona dabil egiten. Izan be, Euskadiko txapela be berak lortu eban martiaren 2an Matienan eta Castilla eta Leon-go txapela be eskuratu eban martiaren 16an.

Txapelketak amaitutakoan, bagilan, garriko baltza lortu eta eskolak emoten hasi gura dauala azaldu deutso BEGITURI Zeberioakoak.

LIBURUTEGIA

Maria Moliner saria jaso dau Lemoako liburutegiak

Erredakzinoa

Lemoako liburutegia Kultur Ministerioak ematen dauan irakurzale-tasuna sustatzeko Maria Moliner XV. Kanpainaren Deialdian saritua izan da. Saria, haur eta gazteai zuzendutako 180 liburu da. Lehiaketak 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan irakurzale-tasuna bultzatzeko ekintzarik onenak saritzen ditu.

Irakurzaletasuna sustatzeko Lemoako liburutegiak hainbat ekintza egiten ditu urtean zehar. Holan,

haurrek eta gazteak zuzenduta, ipuin lehiaketak, ginkanak, tailerrak, *bookcrossing*, eta ipuin kontalariak antolatzen ditu liburutegiak; helduak zuzendutako narrazio lehiaketa bat; liburutegia eskolara eta ugerlekuetara erosten dabe eta Liburutegiaren Egunean, liburuak zozketatzen dabez. Gainera urtean zehar, liburu markagailuak egiten dabez eta nobedadeen txostentxoak. "Ekimen honek igarri dogu mailegu eta irakurle kopuruak nabarmen gora egin dauala, izan be, Lemoako liburutegiak daukan arazoa, herrialdearen kanpoaldean kokatuta dagoala da" dino Josune Lejarazu Lemoako liburutegiaren zuzendakaria.

Meritu handiko saria da hau ze Lejarazuren arabera, Lemoako liburutegiak 3.000 euroko aurrekontuagaz eta astean 15 orduko lanaldi batez funtzionetan dau.

Proiektu barriak

Proiektu bat finkatu ahala hurrengo pentsetan dagoala dino liburutegiaren zuzendakaria. Aurrerago bideratu gura dituan proiektuen artean, liburutegiko webgune edo blog dinamiko bat sortzea dago, bertan, liburutegiko nobedade, zer-



Josune Lejarazu.

bitzu eta ekintzen barri emoteko. "Edadeko jentek liburutegiko zerbitzuak erabiltea eta helduen artean euskeraz irakurteko joera bultzatzea" dira liburutegiaren beste erronka batzuk.

Maria Moliner lehiaketa

Maria Moliner lehiaketa 1.988an ipini zan martxan eta urtean 300 liburutegi saritzen ditu 2.200 eurotan balorautako gaztelarazko liburu sorta batez. Aldez aurretik aukeratuak izan diran liburutegiaren artean, 12.000 euroko hiru sari eskeintzen dira eta aurton lurretako liburutegia izan da sarituetako bat.

"Saria esfortzu ekonomikoa baino esfortzu pertsonalaren bidez lortu ahal izan da eta guztion lanari esker izan da posible: herritarren parte-hartzeari, JB Eguzkiza Meabe Ikastetxeagazko alkarlanari eta Udalaren laguntzeari esker, hain zuzen be" dino Lejarazuk.

ANTZERKIA

Antzezlan bi Igorren

Erredakzinoa

Huts Teatro Konpainiaren *Publikoari gorroto* antzezlanak ikusteko aukerea egongo da maiatzaren 11n 20:00etan. Bazkideentzat doban izango da, bazkide ez diranak 6 euro ordaindu beharko dabez.

Xabier Mendiguren Elizegik 1985ean idatzi eban testua. Antzezlan ezohiko bezain ausart honen XIII. Donostia Antzerki Saria irabazi dau eta antzerkiari buruzko hausnarketearen funtsa izatea azpimarratu dau epaimahaia. "Antzerkiaren gaineko hainbat kontu aztertzen dauz, besteak beste, ikuslearen eta aktorearen rolen analisia eta antzerkiak gizartean daukan zeregina". Manex Fuchsek zuzenduta, aktore amorratu baten rola beteko dau Ander Lipusek eta antzezlanak ikustera joan diran ikusle biak (Iñaki Ziarusta eta Miren Tirapu) eszenalera igon eta torturatu egingo dauz.

Maiatzaren 3an ostera, Txalo Produzioak-en eskutik *Jon bel-durgabea* umeentzako antzezlanak egongo da arrastiko 18:00etan. "Jon gazteak ez daki bildurra zer dan eta bere aitak aholku zuzendutako emon deuto, behin eta barriro zer ete dan azaltzen saiatu ostean: goxo-goxo bizi dan etxea itxita, bildurraren bila abiatzea" dino sinopsiak.

MUSIKEA

Agur Bidean Galduta taldeari

Irati Urien

Bidean Galduta musika taldeak bere ibilbidea amaitutzat emon dau. Atzenengo kontzertua Lemoako Karabie Gaztetxean emon eban, apirilaren 13an. Munitibar eta Etxebarriko Ekaitza taldeak hasi eben gaua. Ostean, emozinoagaz hasi eta amaituez, etxeko txandea izan zan. Zale eta lagun asko batu ziran agurrean; horreen artean, taldearen zuzendakari sano garrantzitsuek izan diran *BG Fans Crew*.



Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskoladuna, kalitatekoa, herrikola

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zuegatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

UDABARRI-ko ZOZKETA
arratiako merkatarien elkarteak

LORTU EIZU !!!

IGORREN EROSI **20€-ko / 50€-ko BALEA** **IGORREN EROSI**

IGORREN EROSKI

Baleak AMEko bazkide diran komertzioetan erabili ahal izango dira

ELKARTEA JAURRIARITZA GOBERNO NASCO

MUSIKEA

Disko barria Eskean Kristö taldeak

Irati Urien

Eskean Kristö taldeak maketa barria atera dau. Sei kanta daukaz: Zaztamar, Iguana, Kontrolik, Dead man, Kolkoa bete diru, eta Arratietik rock&rolla. Abesti danak 70. hamarkadako rock&roll sasoia ekarten dabe gogora. Ezelango lotsa barik eta modu gordinean, dana emoten dabe bai diskoan eta bai zuzenekoetan. Maketak salgai dagoz betiko tabernetan eta kontzertuetan be erosi ahal izango dira. Maiatzak 3an Laudioko Drumgorri aretoan, 11n Dimako Gaztetxean, eta 25ean Gopegin joko dabe.

Gaztea Maketa Lehiaketea

XXII. Maketa Lehiaketan parte hartu dau taldeak. Orain dala

gitxira arte boto eske ibili ziran; izan be, lehenengoakandik boto gitxira egozan. Bigarren postu horregaz aprilaren 26an Bilborock-en egin zan finalera pasau ziran baina han ez eben irabazterik lortu. Garailea Zarautzeko Skasti taldea izan zan.




LEHIAKETEAK

Piropo lehiaketea martxan Igorren

Erredakzioa

Nire mamiak zure gorringoan busti gura dau, ñam-ñam; Inizituen artean zeu zara maitia nire ustrukue... euskerazko erregistro kolokiala lantzeako beharra ikusi zalako ipini zan martxan piropo lehiaketea. Aurreko urteetan lez, piropo originalenakaz jaietarako pegatinak aterako dabez. Parte hartzeako mezu bat bidalita euskera@igorren.net-era edo, gutunazal baten barruan Kultur Etxean entregautu. Proposamen guztien artean hautapen batzorde batek piropoa modu sor-

tzaile, ez sexista, adierazkor eta ludiko batez azalduta dagoan balorauko dau eta horren arabera aukeratu dauz piropo originalenak. Irabazleak, urte amaierara arte, Kultur Etxean zine sarrerak doban eukiko dauz.



IBILALDIA

Errotarik errota, naturea eta kulturea buztartuz

Jon Urutxurtu

Maiatzaren 5erako prestatu dabe Joko Alai eta Ipizki Taldeak 2013ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten zortzigarren edizioa beteko dau oinezko marxa honek eta antolatzailak adierazo dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, herritarrai zein kanpotik hurreratzen diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea; eta bestetik, Zeanuriren historian errota izan daben garrantzia ezagutarazotea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko

dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea eukiko dabe.

Ibilbide bi: luzea eta laburra

Ibilbide bi prestatu dabez, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa.

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan (izen emotea 08:30ean, 3 euro); plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Al-tziber eta Errotabarri erroten ondotik pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe partehartzaileak. Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota topauko dabe, Beretikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserrien ingurutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera

jaitsiko dira Ibargutxiko errotarako bi-dea hartzeako; hemen, atek zabalik izango dira, eta gura dabenak kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deustie bideari, oraingoan beste aldetik. Presatik



Olabarriko errotea.

100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barrizeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, azken kilometroa betetzen hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarrikoa —Pujana familiak zaharberri-tua—, eta bisitetako aukerea izango da, ate batetik sartuz eta bestetik atereaz, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik.

Ibilbidea amaitzerakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deustela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udabarriak naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Informazio gehiago www.ipizki.com helbidean edo telefono honeetan 653 016 117 eta 94 673 92 87.

ZUGAN NI

Arratiarrak irabazle

Institutuko ikasleak

Urtero lez Zugan Ni antzerki lehiaketan parte hartu dabe Arratiako gazteak. Talde bi sortu dira aurten institutuan partaide asko egon diralako. Lehiaketako gaia "Gure herria" izan da, eta talde biak gai historikoetan oinarritu dira *Petralandako ingurumari* Erdi Aroko inksizino epaiketara bat eta *Goizeko izarra* Gemikako bonbardaketan galdutako umeak. Lehiaketara 7 talde aurkeztu dira eta Arratiako taldeak sano emoitza onak lortu dabez. *Goizeko izarra* hirugarren postuan geratu da eta *Petralandako ingurumari* irabazle. Olaia Laruzea eta Ismael Pereira izan dira monitoreak. Ikasleak, jaso daben laguntza guztia eskertu gura dabe, eta batez be Markeliñe, obrak taula gainera eroateko aukera emotearren.

DUNBA

Gure proiektua



Arteko eskolako ikasleak ipuin irakurketea landuten.

Arteko eskolako ikasleak

Gu hirugarren zikloko ikasleok, bosgarren eta seigarren mailakoak, Kirola Proiektua egin eta aurkeztu geuntsen ikaskide, irakasle eta gurasoai.

Lan hori aurrera eroan ahal izateko sareko iturri desbardinak erabili genduzan.

Lortu genduzan informazio oso zabala izan zanez hiru ataletan banandutea bururatu jakun: futbol zelaien maketak egitea, ipuina asmatzea eta kirol desbardinaren azalpenakaz Power Point-a.

Maketak egin aurretik ingurumena kontuan izatea adostu genduzan. Horregaitik birzikletako

materiala erabili genduzan bakarrik. Gutako bakotxa futbol zelai desbardin baten oinarritu zan: San Mames, Camp Nou, Anoeta, Santiago Bernabeu...

Ipuinari buruzko aurre jakintza idatzi genduzan beste hainbat ipuin liburu irakurri baino lehen. Ondoren horreetan agertzen ziran detaile guztiak gehitu genduzan. Azkenean danon artean bat idaztea pentsatu genduzan. Testuari lotutako marrazkiak etxean egin genduzan banan-banan eta politenak liburuan jarri ziran. *Arteanstein gaztelua* izenburuagaz plazaratu genduzan.

Gelan daukaguzan eroangarrien laguntzeagaz Power Point-



ean argitaratu genduzan kirol ugariaren gaineko informazioa.

Proiektu honetan lankidetzan gustura lan egin dogu.

AGENDEA

MAIATZAK 3

DIMA
19:30ean, "Diman etxean gura doguz"
Herriak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.
IGORRE
18:00etan, *Jon Beldurgabea* antzezlan.
LEMOA
Ludotekan tailer berezia Amaren Eguna dala eta.
Bizikleta tailerren parte hartzeako izena emoteko azken eguna.
13ra arte, Haur Eskolako matricula epea zabalik.
ZEBERIO
Santa Kurtze jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

MAIATZAK 4

AREATZA
Santi Kurutz jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.
BEDIA
17:00etatik 20:00etara, kirolarientzat egingo dan osasun azterketarako izena emotea liburutegian.
IGORRE
Maiatzaren 29ra arte, "Granitos de ilusion" argazki erakusketa, Erakusketa Aretoan.
22:00etan, zinea *The host* Lasarte Aretoan.
LEMOA
10:00etan, Lemoako Udaleko Gazteria Zerbitzutik antolatuta, bizikleta tailerra kiroldegian.
ZEANURI
18:00etan Dima-Zeanuri herri kirol desafioa.

MAIATZAK 5

ARTEA
09:00etan, AKKTk antolatuta urjauziko mendia ibilaldia. Urtekerea Barazarretik. Hamaiketako Saldroon. Bueltan poteoa Artean.
IGORRE
17:00etan, umeentzako zinea *Río* (euskerez).
19:30ean, zinea *The host* Lasarte Aretoan.
LEMOA
Ganzabalek antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.
ZEANURI
08:30ean Erroten VIII. Ibilaldian izen emotea. Plazan.

MAIATZAK 6

BEDIA
Hilaren 17ra arte, argazki erakusketa: 2012ko

Gabonetan egindako jarduerak liburutegian.

MAIATZAK 7

LEMOA
19:00etan, "Udaleri baten urigintza antolaketa" Jubiladuen Etxean. Urigintza Jardunaldien barruan.

MAIATZAK 8

ZEANURI
20:00etan, Ander Manterolaren berbalda "Zeanuriko kurutzeak: Fedea, artea eta historia". Udalekxan.

MAIATZAK 9

AREATZA
18:30ean, Xake tailerra udalekxaren 3. solairuan.
IGORRE
20:00etan, zine kluba. *El angel exterminador* (Buiuel).

MAIATZAK 10

ARANTZAZU
19:00etan berbalda "La arqueología como medio para conocer nuestra historia: de lo grande a lo pequeño" (gazteleaz). Antolatzailea: Elizportaleko Gazte Asanbladea.
AREATZA
Umeentzako ginkana, "Animali desbardinen oinatz eta arrastok". Parkebeak antolatuta.

MAIATZAK 11

AREATZA
10:00etan II. Arratia Raid.
23:00etan Jabier Mañon Bixer Tabeman.
IGORRE
20:00etan, *Publikoari gorroto* antzezlan.

LEMOA
Umeen urtekerea. Goriz. Ermua (289 m.). Ganzabal.
ZEANURI
19:00etan, Udaberriko Kontzertuak Andra Mari parrokian: Xemeingo Abesbatza, Zornotzako Andra Mari Ikastola eta Zeanuriko Abesbatza.

MAIATZAK 12

IGORRE
17:00etan, umeentzako zinea *Los abuelos al poder*.
19:30ean, zinea *Los amantes pasajeros*.
LEMOA
Ganzabalek antolatuta urtekerea, Lizarrusti-Guardetxea.



Black&Baltz jaialdia Lemoako Karabie Gaztetxean

Lemoako Gazte Asanbladeak, Igorreko Astrapalea Musika Elkarteak lagunduta, musika baltzaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Honegaz lotuta, Mandauli Irrati Librea izenpean, Arratian aspaldi jaiotako ekimena gogora ekarri eta irratia berritu eta libre bat sortuko da, "behintzat, egun batez".

Jardunaldi honek helburu bi daukiez. "Bata, gaur egungo musika estiloak Amerikan izandako kulturen nahastean daukiela jatorria ezagutarazotea, eta bestea, parte-hartze herrikoia bultzatuko dituen ekintzak aurkeztea" antolatzaileen esanetan.

Programazioa maiatzaren 10ean, barikuan, hasiko da. Euskal Herriko irratia libre desbardinen kideak izango dira hizlari, euren esperientzia azaltzeko irratia sortze tailer baten bitartez. Gau aldera, musika baltzaren istorioa kontauko dauan kontzertu berezia izango da: musikariak, jantzariak zein hizlariak nahastuko dituan ikuskizuna, hain zuzen be. Gero Arratiako musikariak bildu gura dituan *jam-sessiona* egingo da. Zaturako, bariz, egun osoko jaialdia antolatu dabe Gaztetxeoak. Goizean zehar Igitieko baseritarren merkadu agroekologikoa izango da, Arratiako eragile sozialak egindako zuzeneko irratsaioagaz batera. Hau, gazte asanbladearen blogaren bitartez zuzenean entzun ahal izango da. Eguerdian bazkari herrikoia, perkusio afrikarraz girotuta. Arrastian, herriko kaleak New Orleans-eko doinuakaz beteko dira, Broken Brothers Brass Bandaren eskutik. Festak musika baltza jotzen daben Bizkaiko taldeakaz segiduko dau: Materia Gris, Priscilla Band eta The Cisco Kids.

Alleko (1.018m.) Txameri (1.299 m.) Beloki (1.271 m.).
ZEANURI
09:00etan, plazatik ibilaldia Santa Lutzira. 10:00etan, kurutzeari harrerea Santa Lutzira eta ondoren ibilaldia bide zaharretik parrokia. 11:30ean, Piedadean marbeagaz bat egin eta mezea Andra Mari Parrokian.

MAIATZAK 13

BEDIA
17:00etatik 20:00etara hila amaitu arte, jaietako paella egunean parte hartzeako izena emotea liburutegian.
LEMOA
19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua Andra Mari Eleizan.

MAIATZAK 14

LEMOA
17:00etan, Afrikako jolasak eta ohiturak: Eskolan. Afrikatik etorritako gurasoen eskutik.

MAIATZAK 15

BEDIA
19:00etan, berbalda "Vacaciones para los intocables de la India". Hizlaria: Eduardo Traver farmazeutikoa.
LEMOA
17:00etan, Monika Salgueiro EHUko irakaslearen "Higiene del sueño" berbalda Jubiladuen Etxean.
ZEANURI
San Isidro eguna. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI
Zeberion baserri-bainuetxe barriztatuta salgai. 320.000 euro. Gorbeia Parkearen barruan kokatuta. Biziteko moduan.
Telefonoak: 94 648 15 90 eta 609 568 453.
AUTOA SALGAI
Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).
AUTOA SALGAI
Toyota Landcruiser-a saltzean dot.
Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).
ETXEA SALGAI
Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukalde ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

DANERIK

GARAJEA ALOKAIRUAN
Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

BIZIKLETEA GURA DOT


Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.
GARAJEA ALOKAIRUAN
Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (Iluntzetan).
ALTZAIRUAK BEHAR DOGUZ
Dimako gaztetxoan lokalean altzairuak behar doguz, sofak, mahaiak, apalategiak... Baten batek botateko edo sobran badaukaz deitu telefono honeetara: 680 207 565 edo 634 401 026.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


- 1 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Jon beldurgabea umeentzako antzezlanerako.**
Andoni Garai (Dima)
Aimar Gorospe (Igorre)
- 2 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Publikoari gorroto antzezlanerako.**
Maidar Agesta (Artea)
Ziortza Ajuriagerra (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Joskileak egiten dau. Zintzo.
2.- Bertan egiten dogu lo. Mordo.
3.- Politikariak emoten dau. 4.- Ezetza emon. Boroa. 5.- Birritan, nahi. Azken letrea. Zer. 6.- Bokala. Euri-jasa.
7.- Ataute. 8.- Santu baten aurretik. Octavio... mexikar idazlea. 9.- India. Soldata.

GOITIK BEHERA

1.- Bildur-ikara. Konsonantea.
2.- Konsonantea. Itsasargi. Iridioa.
3.- Oinarritzko lau odol taldeetako bat. Edur-luma. 4.- Informatikan, oinarritzko informazio banako bitarra. Boroa. Taut. 5.- Ulermen. Sodioa. 6.- Zer. Sasoia. Letra bat. 7.- Erdiko bokala. Biloztu.



Topau kolore gorria daukielako ezagutzen diran zazpi gauza.



AKMIKO

Igorrenika



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoa
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

ARKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 Beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Familia Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialekua E-3 Pabeloa (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balneario: A1, A, B7E &
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urroz@euskalnet.net

NEREA ZULOAGA

Umeentzako hamar kantu eta hamar ipuin

Kontaidazu! Kontaidazu! ipuin eta kantuak jasoko dabez begitu-lagunak gitxi barru. Iratxe Andikoetxea eta Nerea Zuloaga Areatzakoa izan ziran lan honen egileak. Akaso kantu egile moduan ez, baina Nerea Zuloagaren abots ederra ezagutzen dabe billaroztarrak, askotan kantu dau eta urte amaierako kontzertuan. Ibilbide luzea dauka Zuloagak musika munduan, nahiz eta Lauro Ikastolan behar egin: Mikel Urdangarinegaz hasi zan, Aikor taldeko partaide be izan zan eta pailazoentzat eta antzerkirako kantuak sortzean ditu, Iratxe Andikoetxeagaz alkarlanean.

Erredakzinoa**Zer da eta zelan sortu zan *Kontaidazu! Kontaidazu!***

Kontaidazu! Kontaidazu! aspaldiko lan bat da, beharizan batetik sortu zana. Ikastolan ikusten genduan ikusita, materialen eskasia, material barri bat egin gura izan genduan Iratxe Andikoetxeak eta biok. Bera, musikaria eta musika irakaslea da. Eskolan lantzean diran gaiak hartuta, hasikerako asmoa izan zan CD bat ateratzea. Hamar gai aukeratu genduzan: gorputza, udabarria, negua, lanbideak... eta asmoa izan zan hamar abesti sortzea. Ez genduan egin maila konkretu baterako, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabilteko aproposa da, baina ez bakarrik.

Lan zabala izan zan eta eskutan daukanak topatuko dau zelan erabili: batzuek bakarrik abestiak erabiliko ditue, beste batzuek ipuinak... Hamar kanta horreek hasikerare izan ziran. Gero ikusi genduan, gure irakasle ikuspuntutik, abesti bat sortzean danean, azalpen bat emon behar dala, kokatu behar dala eta azalpen hori ipuinen bidez egitea pentsau genduan.

Ipuinak be zeuek sortutakoak dira?

Bai. Egin genduan zera izan zan: adibidez, abesti bategaz planteetan bazan jolas bat egitea, jolas horren azalpena ipuin baten bidez emotea. Holan, hasikeran CD bat bakarrik izango zana, handituz joan zan eta azkenean hamar ipuin eta hamar abesti izan ziran. Zabalkundea xume-xumea izan da eta batez be agoz agokoa. Erabili dabenak nik uste gustura erabili dabela. Urteak pasau dira eta guk oraindino erabilten dogu.

Zure ibilbidea musikearen munduan Mikel Urdangarinegaz hasi zan.

Bai. Unibersidade garaian Mikel Urdangarinegaz hasi nintzan abesten. Orduantxe ezagutu neban Mikel. Bera bertsolaritza munduan ebilen. Eta bikote bat sortu genduan

a capella abesten ebana. Emon genduzan kontzertu batzuk. Baina *a capella* kantetea oso gogorra da. Gaztetxeetan-eta ibiltan ginan.

Gaztetxeetan *a capella* kantetan!

Bai, bitxia da. Gogoratzen dot, Deustuko gaztetxean, aurrean punkie bat neukala eta pentsau nebala "honek ez daki ze kontzertu motara etorri dan". Baina bai, holango leku bitxietan kantetan genduan, oso gustura.

Hori gitxi gorabehera zein urtetan izan zan?

Ba orain dala 17-18 urte, 1995-1996 urtean edo.

Mikelegaz hasi nintzan baina heldu zan momentu bat segidu edo ez ebatzi behar zana. Abestu gura izan ezker, hori lanbide bat da, eta nik argi neukan lanbide hori ez nebala gura eta ikastolan hasi nintzan beharrenean. Gauza bat da gustura abestea eta gustukoa izatea kantua eta holan, eta beste bat bizimodu hori eroan behar izatea. Mikelek jarraitu dau bide horretatik eta ondo atera jako.

Hortik aurrera eta musikeari jagokonean, lan asko egin dodaz argitalexte bategaz, Zubia argitalextekoak sarritan deitzean nabe argitaratu behar dabenean material barriren bat. Euskera liburu barri bat edo CD baten neskearen abotsa neuk ipinten dot. Urteak daroadaz eurekaz txitean-pitean beharrenean. Lan polita da eta nik oso gustura egiten dot. Gainera ikastolan erabilten daben materiala da.

Ibili zinienean gaztetxeetan eta *a capella* kantetan, ez zenuen ezer grabau?

Ez. Grabau genduan holan zeozer oso etxekoa.

Zerbaist egin genduan. ETBra be joan ginan Funtzioa saiora Mikel Urdangarin eta biok. Niretzat itzela izan zan, baina *a capella* kantetea sano gogorra da.

Bueltau zinan eszenalekura?

Bai, taldetxo bat egin genduan lagun batzuk Aikor deitu izan zana. Lagunarteko gauza bat izan zan, baina talde horretan Iratxe An-

dikoetxea egoan, gero *Kontaidazu! Kontaidazu!* nigaz egin ebana. Taldean hasi ginan gure kantak sortzean. Ze nik Mikelegaz kantetan nebanean, euskal kanta tradizionalak kantetan nebazan, ez ziran geuk sortutakoak. Argitalextean be, eurek emoten euskuezan kantak. Baina talde honetan sortzean hasi ginan: bai letrak eta bai musikea.

Gero talde hori desagertu egin zan eta Iratxe eta biok jarraitu genduan beharrenean. Lantxoak ateraten jakuzan. Adibidez, Kafe Antzokian, uste dot jarraituten dauala, badago antzerki talde bat -Anemona, Oskola eta Karramarroi- eta horreen bizpahiru antzezanetako musikea egin dogu. Hitzak, musikea eta grabetak geuk egin izan doguz.

Areatzako pailazo taldearentzat be kantak egin doguz. Hor bai,

letrak eta musikea. Eta hori oso gustura egiten dogu. Holango lanak opari txikiak legez dira niretzat, lujo bat.

Zertan zabizie orain?

Orain apurtxo bat mobidu dogunez barriro hori *Kontaidazu! Kontai-*

dazu! bagabiz zerbaist egin guran barriro. Eta bagagoz apurtxo bat berreskuratuko dogulakoan edo, behintzat gustura egiten dogun gauza bat danez, gustuko doguzan kanta batzuk egin gura doguz. Barriro hasiko gara poliki-poliki.



Nafarroako Gobernuaren debekuaren aurrean emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerrairratia.com

00 34 948 17 01 51